

Juan Cruz Allik gezurtatu egin du zuzenketa presioen ondorio denik

Horrelako «txantaia» inola ere ez lukeela onartuko adierazi du

Asteburuko ixiltasunaren ostean, UPNko Juan Cruz Allik bere burua zuzitzeko ahaleginak egin zituen atzo komunikabideen aurrean. Ostiralean kaleratutako adierazpen politikoa «zuzenketa» denik eta presioen ondorioz egin zuen ukatu egin zuen atzo.


IRUÑEA

Joan den ostiralean aditzera eman zuen deklarazio politikoa bere alderdikideen presiopean egin zuenik ukatu zuen atzo egun gutxi barru Nafarroako lehendakari izango den Juan Cruz Allik.

Presioen hipotesia ezezik, deklarazioa aurretik esandakoen «zuzenketa» denik ere gezurtatu egin zuen UPNko hautagaiak. Bere iritziz, deklarazioan ez zen ezer zuzentzen, baizik eta «gaizki ulertutako zenbait puntu argitzen zirela».

Deklarazio politikoan azaldutakoari eutsiz, irratian esan zuen Allik bere Gobernu «irekia» izango dela eta elkarriketarako prest egongo dela, baldintza bakar batekin: solaskideek ez dezatela erreferentzi puntu bakar bezala indarkeriarena eduki. Lehendakariak ez zuen argitu Lurraldea koordinakundea maila horretako solaskideen artean sartzen duen ala ez. Izan ere, Lurraldearekin biltzeko konpremezua izan zen ostiraleko deklarazioa eragin duen polemikaren lehen kapituloa.

Herrilan ofizialen kontra azaltzen diren taldeen elkarriketatzeko eragozpenik ez duela azpimarratu zuen Allik, «ingurugiroa izango bait



Juan Cruz Alli.

da UPNren Gobernuaren ardatzeta-bat».

Jaso dituen ustezko presioei dago-kienez, «koakzio onartezina litzateke hori —adierazi zuen UPNkoak—, eta suposatzen dut haiek [ostiral arratsaldeko bileran egon zirenak] badakitela inola ez nukela onartuko tipo horretako txantariak, aspalditik ezagutzen naute eta».

Ostiralean egindako bileran PPkide ohi adina UPNkide egon zirela nabarmendu zuen Allik, deklarazioa Del Burgo eta bere jarraitzaileen eragina izan denik gezurtatu nahian.

Bere esanetan, «azkenaldian egindako adierazpenekin errealtate aldakorrena moldatu beharra dagoela eta inobilismoan ezin dugula gelditu azaldu nahi zian dut».

PSOEK iragarritako oposizio «tinkoari» buruz, esan zuen lehendakariak sozialistek ere jarraz al-

datuko dutela eta «bestela, nafarren aurrean erantzun beharko dute, horiek izango direlako kaltetuenak». UPNren Gobernuak oztokatzen badute, ixilik ez direla geldituko aurreratu zuen Allik «eta hitzekin beraiek bezain maltzurak izan gaitezkeela erakutsiko diegu».

**PP-KOEKIN
BILERA
GAUR**

Alliren adierazpenak ezezik, berak nahi duen Gobernuaren osaketa ere polemikoa ari da gertatzen. Ezagutza eman diren izenen artean, bakarra da PPkoa izandakoa eta horrek haserrea piztu du Del Burgoren gizonen artean, UPN-PP fusioa hitzartu zutenean, kargu publikoen herena PPkoak izango zirelakoan gelditu bait ziren.

Gai horretaz negoziatzeko bilera egingo dute gaur Madrilen Juan Cruz Allik eta PPko burukideek eta UPNkoak ziurtat jo zuen atzo ados jarriko direla.

Espaniak bere baitan dituen nazioen autodeterminazio eskubidea dela eta, egunotan dabilen polemikaz ere bazuen zer esana Allik. Bere iritziz, PPekin PSOEekin baino hobeto ibiliko dira nazionalistak.

Independentziaren bila dabilen autodeterminazioak «zentzurik ez duela» ziurtatu zuen Allik, «bai ordea autodeterminazio deskafeinatuak, hau da, proiektu politiko propioaren onarpena nahi dutenen autodeterminazioak. EAEkoek nahi badute frogatu ez direla Extremadura, bere historia eta nortasuna dutelako, ez dago arazorik, Estatuak hori onar dezake, agian ez egungo eredu deszentralizatuan, baina bai eredu federalean».



Errenteriakoaren atzetik Donostia eta Irungo komisaldegia zabalduko dituzte

Ertzaintzak hil honetan irekiko du Errenteriako komisaldegia

DONOSTIA

Ertzaintzak Errenterian zabalduko duen komisaldegia Gipuzkoako haundiena izango da eta Pasaia, Lezo eta Oiartzungo herrietara ere zabalduko ditu bertako agenteak. Hilabete honen erdialdera, edo gehienez amaiera aldera, zabalduko da, Ertzaintzako iturriek jakitera eman dutenez.

Errenteriako komisaldegia urte honen hasieran zabalteko asmoa zegoen, baina Adolfo Fernandez Alustiza, Ertzaintzako Lurralde Unitateetako zuzendariak azaldu duenez, «mota desberdinetako arazoak egon dira». Batez ere eraikuntza lanei buruzko arazoak izan direla dio. Errenteriako komisaldegia Santa Clara enparantza ondoan egongo da, Victoriano Luzuriagaren lantokia zegoen lekuan. Komisaldegia bederatzi pisukoa izango da.

Dena den, Errenteriara destinaturiko ertzain asko bertan da dagoeneko eta azken egunotan izandako protesta ekintzen kontra komisaldegia honetakoek ihardun dute. Inguruntzako zerbitzuak Donostiako Amarako komisaldegitik hasi ziren betetzen, eta Errenteriako zaintzen ere aritu dira. Komisaldegia hau eraiki-

tzeko asmoa aditzera eman zutenik protesta adierazpenik izan da, eta kontrako koordinadora ere martxan jarri da.

**HIRUREHUN
ERTZAIN
LANEAN**

Gipuzkoako Ertzaintzaren komisaldegia izango den haundiena izango da Errenteriako, Euskal Autonomi Elkarteko bigarrena, baina tamainagatik, bai ertzain kopuruagatik. Hirurehun ertzain izango da lanean bertan.

Polizia konpetentzia guztiak berteko dituzte Errenteria, Pasaia, Lezo eta Oiartzunen. Trafikoaren kontrola ere beregain hartuko du, hiribarrertan ezik, eta baita delinkuentzia ere. Aurrerago Nortasun Agiriak egin eta berritzez ere arduratuko dira.

Ondorengo zerbitzuak beteko dituzte publikoarentzako bulego izango du, salaketa eta atestatuak jasotzeko, komisaldegia eroperatibitate zona, administrazio bualegoak, ertzainentzako atsedeen leku eta aldaletxeak, garaje eta kalabojoak.

Bertara destinatutako ertzain gehienak seigarren eta zazpigarren promozioetako dira, baina bada esperientzia haundiagokoak ere, Adolfo Fernandez, Lurralde Unitateko zuzendariak azaldu duenez.

Ordoñez: «Pobrezia baino ez liguke ekarriko independentziak»

DONOSTIA

Euskal Herriaren independentzia «pobrezia baino ekarriko ez ligukeen zentzugabekeria da» Gregorio Ordoñez, Gipuzkoako PPko lehendakariaren ustetan. Eusko Alkartasunari «erradikalismo abertzalearen ganako joera berrestea» leporatu zion, Herri Batasunarekin batera zenbait ildetan independentziaren alde egin duen aldarrikapena dela eta.

Ordoñezen hitzetan, «autonomia ahalik eta gehien indartzea da egin beharrekoa, Espainiako gainontzeko lurraldeekin batera aritzeko eta zati-ketarik ez eragiteko». Autodeterminazioari buruz «hainbeste esanak» herritar asko aspertu duela uste du, «beste ardura nagusiago batzuk dituztelako, lana edo etxebizitza aurkitzea, edota ETako hiltzaileek tiro

bat ez diezaietela jo» adierazi zuen atzo.

«ETak hiltzeari utziko dio —jarraitu zuen— baina ez EAJ eta EAK eskua luzatuko diotelako, baizik eta beste irtenbiderik ez duelako izango da gizartearen arbuioak eta polizia arrakastak eragingo dutelako». Alderdi nazionalistetakoz zenbait buruzagi politikorentzako ETAkideak «bide okerretik joandako anaiak» direla dio Gregorio Ordoñezek. «Baina delitugile hutsak dira guretzat» gaineratu du.

PPko buruzagiak azkenik, Herri Batasuna kritikatu zuen, «ondo asko bait dakigu Epaitegiek emandako epaiak edo hauteskunde emaitzak beraien aldekoak direnean soilik onartzen dituztela, eta hori ez da inolaz ere, joko demokratikoaren arauak onartzea, guztiz kontrako baizik».

Eusko Jaurlaritzak egoitza berria izango du 1993an Gasteizen bertan

GASTEIZ

Eusko Jaurlaritzak egoitza berria izango du Gasteizen, 1993ko udazkenerako amaituta egongo dena, exekutibo autonomoko iturrietatik Vasco Press albiste agentziari jakin erazi diotenez.

Eraikuntza berria gaur egungoaren ondoan eraikiko da, Lakuako poligonoan eta bertan Eusko Jaurlaritzak egun dituen lokalak zabalteko da ideia.

Bost solairu eta bi soto izango ditu eta bere estiloa funtzionala eta moderno izango da.

Obren lehenengo fasearen adjudikazioa 3.300 milioi pezetetan baloratu da. Egoitza berrian Gobernuak zeinbait departamenduk eta erakunde autonomok izango dute tokia.

Aurrikusita betetzen bada, Joseba Zubia, Lehendakaria, Erregimen Juridiko eta Garapen autonomiko sailburua izango da hil honen 18an edifizio berriaren lehendabiziko harria ezarriko duena.

Arruti eta Larzabalek beste epaiketa bat izan zuten atzo

MADRIL

Juan Carlos Arruti Azpitarte «Patterra» atzo epaitu zuen Madrilen Epaitegi Nazionalak, ustez poliziaren konfidentea zen Juan Luis Agirreurreta Arzamendi hiltzeagatik. Epaiketa berean, Jesus Casanova Salazar Michelin enpresako arduradunaren kontra atentatua egiteagatik ere epaitu zuten Arruti. Arrutirekin batera Jesus Maria Larzabal eseri zen akusatuen aulkian, lehenengo atentatuarekin zerikusia duela uste bait du Epaitegiak.

Fiskalak 52 urteko gartzela zigorra eskatu zuen Arrutirentzat eta 29 Larzabalentzat. Atentatua 1979. urtean burutu zen Arrasaten, Arruti «Comandos Anticapitalistas» talde armatuko partaide zen garaian. Larzabalek talde armatuko militantea zela onartu zuen atzoko epaiketan, baina ez ordea, leporatzen dioten atentatu

tuaren parte hartu izana. Fiskalak esan zuenez, Arruti eta Baztarrika Iparraldetik Arrasateraino abiatu ziren, beste hirugarren kide batekin -Bixente Senar- atentatua egiteko.

Arrutiri egotzi dioten bigarren atentatua, Casanova Michelineko arduradunaren kontra egindakoa 1980. urtean burutu zen Gasteizen. Fiskalak dioenez, Arrutik ezezagun baten laguntzarekin Casanovaren aurka tiro egin zuen, eta zauri larriak eragin zizkieten aurpegian. Arrutik onartu egin zuen, bata zein bestearen kontra tirokatu zuela, baina Larzabalek ez zuela parte hartu ziurtatu zuen.

Larzabalek 1983. urtean utzi egin zuen erakunde armatua, eta horregatik Arrutik salatu zuen berri Poliziak atxilotu zuenean. Arrutiren abokatuak ez zuen defentsarik egin, bai, ordea, Larzabalenak. Biok absoluzioa eskatu zuten.